

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELCIEGOKO UDALA

2016ko ekitaldiko zergak eta tasak kobratzea

Luis Aldazabal Ruiz de Viñaspre, Elciegoko Udaleko alkate lehendakaria.

Jakinarazten dut: 2016ko azaroaren 4tik aurrera ordaindu ahal izango direla borondatezko epean ondoko exakzioen 2016ko ordainagiriak:

- Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Landa bideak mantentzearen tasa.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

I. Ordaintzeko epea

A) Borondatezko epea: 2016ko azaroaren 4tik 2017ko urtarrilaren 3ra arte.

B) Betearazte aldia: 2017ko urtarrilaren 4tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu behar dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste inolako izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek, udalean eskatu ahal izango dute.

III. Gomendioak

Banku helbideratzeetako altak edo aldaketak eta hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Elciegoko Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Elciego, 2016ko urriaren 4a

Alkatea

LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE